

3 / 08

# Irizpena

GIZARTE ZERBITZUEN

Legearen Aurreproiektuari  
buruzkoa

Bilbon, 2008ko martxoaren 26an



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico  
y Social Vasco

© Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea  
Gran Vía, 35-1. solairua  
48009 Bilbo  
[www.cesvasco.es](http://www.cesvasco.es)

Maketazioa eta fotomekanika: Argia Servicios Gráficos, S. L.

Inprenta: Gestingraf, S. A. L.

Lege Gordailua: BI-354-08

# Irizpena

## I AURRREKOAK

2008ko urtarrilaren 3an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren idazkia sartu zen eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen Aurreproiektuari buruzko txostena eskatzen zen, 9/1997 Legeak, ekainaren 27koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearenak, 3.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ekimen legegile horrek Gizarte Zerbitzuen Legea eguneratzen duenez, bere helburua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema berria diseinatzea da. Horrek Ongizatearen Egoeraren egiazko mugari bihurtu behar du. Biztanle guztientzat bideratuta, erantzukizun publikoaren eta estaldura unibertsalaren sistema izan behar du. Gainera, egoerak geroz eta konplexuagoak eta anitzagoak direnez, honako hauek guztiak sendotu behar dira: hirugarren sektorearekin lankidetzak, laguntzeko sare informalek euskarria, pertsonen modu antolatuan parte hartzea, sistemen artean (gizartea eta osasuna, gizartea eta lana, gizartea eta biztanleak, gizartea eta hezkuntza, gizartea eta justizia, gizartea eta kultura eta bestelakoak) lankidetzak-espazioak egituratzea, biztanle guztiak hiritarrak eskubide osoz izateko gizarte-politika garatzea, gizarte-justizia sustatzea eta baztertzearen egitura-arrazoiei aurre egitea.

Berehala Batzordearen Batzarreko kide guztiei dokumentuaren kopia bidali zitzaizkien, batetik, proposamenak eta iritzia bidaltzeko eta, bestetik, dagokion Lan Batzordeari horiek luzatzeko, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudiak xedatutakoaren arabera. 2008ko martxoaren 6an Gizarte Garapenerako Batzordeak hurrengo Irizpen Proiektua onartu zuen eta Batzordearen Batzarrari proposatuko zaio eta gaur martxoaren 26an egin den Osoko Bilkuran testu hau botoen gehiengoz onartzen da.

## II EDUKIA

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen Aurreproiektuaren testuak honako zatiak ditu: zioen adierazpena, zazpi Tituluetan antolatutako 94 artikulua, Behin-behineko sei Xedapen, hamaika Xedapen Osagarria, Indargabetzaile bat eta Amaierako bi. Ondoren edukiaren sintesia adieraziko da.

### Zioen adierazpena

Gizarte-errealitatearen eboluzio berriari erreparatu, gaur egun, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea (1996koa) onartu zenetik hamarkada bat baino gehiago igaro denean, sistema finkatu eta sendotu behar da. Arau hark oinarrizko funtsak aurreratu arren, bertan azaldutako nahia (gizarte-zerbitzuekiko eskubidea sustatu eta bermatzea) betetzeko kudeaketa- eta koordinazio-tresnak ez zituen egituratu. Helburu horrek **indarreko araudi-esparrua berritzea** eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Lege berria onartzea eskatzen du.

Esparru berriaren elementu nagusia **gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboaren** aitortzea da, hiritarren eskubidea baita. Aurreproiektuak xedatutakoaren arabera, eskubide subjektibo horren jardute eraginkorra bermatu behar da eta, horretarako, halaber, **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eratu** behar da; herri-erantzukizuneko, modernoa, aurreratua eta bermatzailea izan behar du, baita bere garapenean ongizatera bideratutako beste herri-sistemekin alderagarria ere; hiru administrazio-maila aginpidedunen artean egitura bermatzeko gai den kudeaketa- eta koordinazio-tresnen multzoz hornitua izango da. Bere esparruan prestazioen eta zerbitzuen sare egituratua ezarri, antolatu, garatu eta finkatzeko arkitektura antolatu behar da, gizarte-, demografia- eta ekonomia-aldaketekin zerikusia duten oraingo eta etorkizuneko erronkei koherentziaz eta eraginkortasunez erantzun ahal izateko.

### Xedapen-edukia

#### I. Titulua. Xedapen orokorrak. 1. Artikulutik 13. Artikulura.

I. Tituluan Legeak xedapen orokorrak ditu eta esparru berriaren eratze-elementuak nahiz funtsezkoak definitzen dira. Ildo horri jarraiki, **Legearen xedea** definitzen da; gizarte-zerbitzuen eskubide subjektiboa aitortzean datza; hala, EAEko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen izaera unibertsala bermatzen da. Horrez gain, euskal Herri Administrazioek Sistema Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoaren esparruan sartzen dute. Izan ere, gizarte-zerbitzuekiko eskubidea eraginkorra izateko antolatu eta egituratu egiten da.

Aurreproiektuan gizarte-zerbitzuekiko eskubidea EAEko edozein udalerritan **errolatutako pertsonari** onartzen zaio eta, oro har, zerbitzua erabili baino lehen

gutxienez urtebetez erroldatua egon beharko du; dena delakoa, zerbitzu batzuk lortzeko (hala nola informazioa, balioztapena, diagnostikoa eta orientabidea, gizarte-larrialdiko prestazioak eta zerbitzuak eta umeak eta nerabeak babesteko zerbitzuak) ez da eskatuko. Aurrekoa alde batera utzi gabe, Euskal Herri Administrazioei aldezturik erroldatuak izateko denbora zabalagoak eta Prestazioen eta Zerbitzuen Multzoan eta xedapen berezietan zerbitzu eta prestazio zehatzak lortzeko baldintza osagarriak eskatzeko aukera ematen zaie. Gainera, eskubidea atzerrian dauden euskal taldeetako kideei hedatzen zaie, 8/1994 Legeak, maiatzaren 27koak, xedatutakoarekin bat. Modu osagarrian, EAEn dauden pertsonak erroldatuak ez izan arren, gizarte-larrialdiko zerbitzuak lortu ahal izango dituztela xedatzen da.

Legeak xedatutakoaren arabera, **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema** arreta-sare egituratua da, **herri-erantzukizunekoa** eta prestazioez, zerbitzuez eta ekipamenduez osatutakoa, herri-titulartasunekoa eta titulartasun pribatu hitzartukoa. Bere helburua pertsona, familia eta talde guztien gizarte-integrazioa eta autonomia erraztea da. Hala, batez ere, prestazio eta zerbitzu pertsonalen eta harremanezkoen bidez **funtzio sustatzailea, prebentiboa, babeslea eta laguntzazkoa** izan behar du. Arloan formulazio aurreratuenekin bat, beharrez izaeraren eta ezaugarrien arabera erantzun-sistema zehaztea hautatu da. Beraz, talde desberdinei erreparatuz ez da egituratu. Horrek ez du inolaz ere esan nahi aipatu taldeak estaldurarik gabe geldituko direnik edo Sistemaren esparruak horien berezitasunak kontuan hartuko ez direnik.

Jarduera-printzipioetan **5/1996 Legeak**, urriaren 18koak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, **xedatutako printzipioak** zaindu eta garatzen dira. Printzipio horien arreta komunitarioaren ikuspuntua zehazten da eta honakoak finkatzea lortu nahi dituzte: herri-erantzukizuna, unibertsaltasuna, hiritarrekiko zerbitzuen hurbiltasuna eta deszentralizazioa, prestazioak eta zerbitzuak lortzeko eta erabiltzeko orduan ekitatea, prebentzioa, integrazioa eta normalizazioa, arreta pertsonalizatua, osoa eta etengabea, esku-hartzeak diziplina artekoak izatea eta arretaren kalitatea, gizarte-zerbitzuen eremuan eta, bereziki, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku hartzen duten eragileen kooperazioa, jarduera publiko eta pribatu formal eta ez-formalen koordinazioa, eta hiritarren parte-hartzea eta gizarte-ekimena Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan sustatzea.

Era berean, I. tituluak **ikuspuntu komunitarioa** finkatzen du oinarritzko erreferentzia-eredu bezala gizarte-zerbitzuen jardueran. Bere ohiko ingurunean erabiltzailei arreta bermatzeko beharrean oinarritzen da. Azkenik, gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileen eta adituen eskubideak eta betebeharrak arautzen ditu.

## II. Titulua. Gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren prestazioak eta zerbitzuak, antolaketa funtzionala eta lurralde-antolaketa nahiz plangintza.

### 14. Artikulutik 37. Artikulura.

Legean lehenengo Kapituluak Gizarte Zerbitzuen Euskal sistemaren **prestazioak** —teknikoak, ekonomikoak eta teknologikoak— eta zerbitzuak **definitu eta sailkatzen** ditu. Horrez gain, esku hartzeko oinarrizko prozedura arautzen du eta erreferentziatzeko pertsona profesionalak kasua koordinatzean oinarritzen da. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa eta Sorta definitzen du, edukia eta eguneratzea, baita prestazioak eta zerbitzuak lortzeko baldintza orokorrak ere; ez dira, ordea, bereziak zehazten.

Hurrengo Kapituluak **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren** egitura orokorra zehazten du eta lehen mailako eta bigarren mailako arretarako gizarte-zerbitzuen artean bereizketa egiten da. Eskainitako laguntza handiagoa edo txikiagoa izan daiteke eta bi kasuetan espezializatua izan daiteke. Halaber, hiru jarduera-maila nagusiak arautzen ditu: gizarte-zerbitzuen esku-hartzea tokiko eremuan, Udaleko Gizarte Zerbitzuen bidez, arreta berezia jarriaz Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren definizioari, egituraren oinarrizko elementu bezala eta Sistema lortzeko lehenengo puntu bezala; hala, jada EAEkko Udal guztiek, berez edo besteekin elkartuta, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua izateko 1996ko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean xedatutako betebeharra finkatu egiten da; esku-hartzea lurraldearen eremuan, Foru Aldundietatik; eta esku-hartzea erkidegoaren eremuan, Eusko Jaurlaritzatik.

Ondoren, **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren plangintza** arautzen da eta gidatuko duten printzipioak zehazten dira: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren jarraitu behar diren helburuak, estrategiak, politikak eta gidalerroak zehaztea, Legean aitortutako gizarte-zerbitzuekiko eskubidea eraginkortasunez ematen dela bermatzeko bitartekoak izatea (hurbiltasuna, lurraldearen oreka eta homogeneousasuna, bitartekoen antolaketa eta aprobetxamendu integrala, arrazionala eta eraginkorra, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan parte hartzen duten elementu guztien koordinazioa eta lana sarean) Plangintzak tresna nagusitzat Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa onartzen du. Era berean, Gizarte Zerbitzuen Mapa osatu beharko du eta bere funtzioa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema egituratzea izango da; xede horrez, Katalogoan sartutako zerbitzu desberdinak ezartzeko egokiak diren biztanle-irizpideak definituko dira; hala, horien izaerari, eskatzaileak izan daitezkeen pertsoneri eta erabiltzaileak ohiko gizarte-ingurunean integartzeko, ahal den neurrian, hurbiltasuna bermatzeko beharrari erreparatuko zaie.

Banaketa geografikoaren elementu nagusi bezala eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema lortzeko aukeren homogeneousasuna bermatzeko eta gizarte-zerbitzuekiko

eskubidearen jardute eraginkorra ziurtatzeko, Legeak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren **oinarrizko jardute-zona** definitzen du; 5.000 biztanleren eremua hartuko duela adierazten du edo landa-guneetan eta zona gutxituetan edo degradatuetan, 3.000 biztanlerena. Hori izango da Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak ezartzeko eremua.

### III. Titulua. **Gizarte zerbitzuen euskal sisteman aginpide-, antolaketa-, kontsulta- eta partaidetza-jardunbidea. 38. Artikulutik 52. Artikulura.**

Lehenik eta behin, Legeak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman **aginpide-**, antolaketa-, kontsulta- eta partaidetza-jardunbidea xedatzen du. Herri Administrazioek gizarte-zerbitzuen arloan dituzten aginpideak definitzen ditu; halaber, bai Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan, bai gizarte ongizatea lortzera bideratutako beste sistema eta politika publikoekin, parekoekin edo osagarriekin harremanetan, administrazioen arteko kooperazio- eta koordinazio-prozedurak eta –organoak definitzen dituzte.

Aurreproiektuak **Gizarte Zerbitzuen Erakundeen arteko Kontseilua** sortzea proposatzen du, beraz, sisteman Euskal Herri Administrazioen artean formalki kooperatzeko eta koordinatzeko Sistema sartzen da. Helburua autonomia-lurralde guztian prestazioen eta zerbitzuen garapen koherentea eta harmonikoa bermatzea da. Gizarte-zerbitzuen arloan Eusko Jaurlaritzako Sail eskudunari atxikita, ordezkari paritarioa izango du, batetik, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien eta Udalen artean, bestetik, EUDELen bidez. Bere funtzioen artean, besteak beste, honako hauek arautzen dira: EAEko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzu Sorten aldeko derrigorrezko txostena edo Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren eta Euskal Herri Administrazioek aplikatu beharreko tresna komunen derrigorrezko txostena.

Gizarte-ongizatea lortzera bideratutako bestelako sistema eta politika publikoekin izandako **kooperazioari eta** koordinazioari dagokionez, Legeak, Herri Administrazioen kooperazioaren eta koordinazioaren eginkizunaren esparruan, kooperazio eta jarduera-tresna eta –protokoloaren bide formalak ezartzea aurrez ikusten du. Helburua jardueren koherentzia eta bitartekoen, informazioaren eta ezagutzen aprobetxamendu arrazionalagoa eta eraginkorragoa bermatzea da. Are gehiago, egokitzat jotzen den kasuetan, zerbitzuen eta prestazioen katalogo eta sorta bateratuak egituratzeko aukera aurrez ikusten da.

Gizartearen eta osasunaren espazioan, pertsonen babesak gizarte-zerbitzuek eta osasun-zerbitzuek batera, modu koordinatuan eta jarraitua jardutea eskatzen du. EAEn, erakundeen eta mailen arteko aginpideen banaketa kontuan hartuta, guztien arteko koordinazio-eredua hautatu da. Helburua sektorea bakoitzaren politikak harmonizatuz garatzea da.

Heltze-prozesuan peto-peto sartua dagoen eremua izanik, hautatutako ereduari jarraiki, sistemen artean **lankidetza-formula finantzarioak** pixkana egokitu eta hobetu behar dira, egokiak suertatzen badira.

**Kontsulta eta partaidetzaren eremuan**, era berean, **Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua** sortzen da, Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseiluak orain arte izandako ezaugarriekin eta funtzioekin. Izaera bereko kontseiluak aurrez ikusten ditu foruaren eta tokiaren eremuetan. Modu osagarrian, autonomiaren mailan sektore-kontseiluak sortzea aurrez ikusten da. Legeak partaidetza-eredua osatzeko, bestelako partaidetza-mekanismoak aurrez ikusten ditu, bai gizarte-zerbitzuen zerbitzuen eta zentroen eremuan, bai eremu orokorrean biztanleei irekitako partaidetza-prozesuak sustatuz.

Azkenik, **gizarte-zerbitzuen erregistro**-motak definitzen dira: izaera eta funtzioak xedatzen dira eta erregistro-inskribapenaren ondorioak zehazten dira.

#### IV. Titulua. Gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren finantzazioa.

##### 53. Artikulutik 57. Artikulura

Titulu honek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren finantzazioa arautu behar du; ildo horri jarraiki, **finantzazio-iturriak** eta Administrazioen artean **lankidetza-formulak** finantzarioak definitzen ditu. Esparruan gizarte-zerbitzuen berezko prestazioen finantzazioa eta beste sistemen prestazioen finantzazioa desberdintzen da. Lehenengo kasuan, arloan aginpidea duten Herri Administrazioen organoen eskuak izango da; bigarren kasuan, berriz, beste arlo horietan aginpideak dituzten Herri Administrazioen organoek finantzatuko dituzte; dena delakoa, prestazio horiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren integratutako zerbitzuetan eskainiko dira. Xede horrez, administrazio eskudunek aurrera egin beharko dute aginpidea duten prestazioak finantzatzeko erantzukizunak pixkana argitzeko.

Era berean, doakoak ez diren zerbitzuak finantzatzeko orduan, **erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa** zehazteko oinarritzko elementuak xedatzen dira. Prezio publikoak zehaztean oinarritutako sistema aukeratu da eta erabiltzaileak eman beharreko zenbatekoa zehazteko errespetatu behar diren oinarritzko irizpideak arautu dira. Prezio publikoa ordaintzeko diru-sarrera garbiak nahikoak ez diren kasuetan, legeak salbuespenak edo hobariak aplikatzea aurrez ikusten du. Edo ondarea izanez gero, Herri Administrazio eskudunaren eta erabiltzailearen artean akordioa izango da hautabidezko finantzazio-formulak erabiltzeko. Nolanahi ere, ondarearen osotasuna, erabilera ona eta balioztapen egokia bermatuko dira. Pertsona adinduentzako egoitza-zerbitzuen kasuan, zorra onartzeko prozedurak egituratu ahal izango dira. Hori arautzeko, Legeak ondarea balioztatzeke orduan, etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioarekiko zenbateko baliokidea salbuetsiko dela aurrez ikusten du; etxebizitza tipoari aplikatuko zaio eta zehazteko adierazle ofizialak aplikatuko dira, arauz xedatzen den baldintzapena.



**V. Titulua.-ekimen pribatuak esku hartzea. 58. Artikulutik 74. Artikulura**

V. Tituluan, Legeak gizarte-zerbitzuen eremuan **ekimen pribatuaren** esku-hartzea arautzen du. Ildo horri jarraiki, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan sartutako gizarte-zerbitzuen prestazioetan partaidetzarako esparrua definitzen du; halaber, ekimen pribatuak zerbitzua eskaintzen parte hartzen duenean edo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan sartu gabe dauden jarduerak egiteko, kontratazio eta laguntza publikorako formulak definitzen ditu. Lehenengoari dagokionez, hitzarmen-jardunbidea arautzen dela azpimarra daiteke. Zerbitzu eta zentro pribatuetan prestazioekiko eta zerbitzuekiko eskubidea eraginkor bihurtu nahi duten gizarte-zerbitzuak eskaintzeko dira, horiek derrigorrezkoak badira eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan sartuta badaude.

**VI. Titulua. -gizarte-zerbitzuen euskal sistema garatu eta hobetzea.**

**75. Artikulutik 80. Artikulura**

VI. Titulua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Hobetzera eta Garatzera bideratuta dago eta testuak prestazioetan, zerbitzuetan, programetan eta jardueretan **kalitatearen hobekuntza** sustatzen du. Horretarako, oinarritzko hiru tresna erabiliko dira: kalitatearen **ebaluazioaren eta etengabeko hobekuntza sistemen** aplikazioa sustatu eta koordinatzeko Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia sortzea; gizarte-zerbitzuetan ikerketa, ikerketa- eta garapen-ekimenak eta ezagutza kudeatzeko ekimenak sustatu eta bultzatzea; gizarte-zerbitzuen adituen prestakuntzan etengabeko hobekuntza.

Bigarren kapituluan **Gizarte Zerbitzuei buruz Euskal Informazio Sistema** diseinatzea, abian jartzea eta mantentzea xedatzen da. Bere helburua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta EAeko gizarte-zerbitzuen magnitude nagusien ezagutza eguneratua bermatzea da. Horrez gain, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren sartutako zerbitzuen eta prestazioen maila jarrai daiteke eta, xede horrez, Prestazioen eta Zerbitzuen Sortan aurrez ikusitakoari erreparatuko zaio. Halaber, gizarte-zerbitzuen programazioari eta plangintzari dagokionez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolaketa orokorrak xedatutako baldintzetara egokitu ahal izango dira.

**VII. Titulua. Ikuskapena arau-hausteen eta zigorren jardunbidea.**

**81. Artikulutik 94. Artikulura**

Legearen zazpigarren eta azkeneko tituluak gizarte-zerbitzuetan ikuskapena eta aplika daitezkeen arau-hausteen eta zigorren jardunbidea arautzen du. Azkenekoari dagokionez, zigor-jarduera oren legetasun-printzipioa errespetatzeko, arau-hausteen eta zigorren koadroa xedatzen da, Euskal Herri Administrazioen ikuskapen-lana egiaz eraginkorra izateko eta, aldi berean, segurtasun juridikoa mantentzeko.

Azkenik, **Legeak behin-behineko aurreikuspenak eta aurreikuspen osagarriak** ditu. Horien artetik, bereziki hiru aipagarri nabarmen daitezke: batetik, 8 urteko

epea arautzen da, Legea indarrean sartzen den unetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Katalogoan dauden prestazioak eta zerbitzuak oso-osorik unibertsalizatzeko. Bestetik, aginpideen banaketa berria izan ostean, birdoitze finantzarioa egiten da eta honakoa adierazten da: aginpideak berriz banatzearen ondorioz eta birdoitze finantzarioarengatik ez dela legea indarrean sartu zenera arte zeuden prestazioen eta zerbitzuen estaldura eta bizitasuna murriztu behar. Behin-behineko hirugarren xedapenak Legea indarrean sartzen denean Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren erabiltzaileak diren pertsoneri jada lortutako eskubideak kontserbatzea bermatzen die, beraz, araudi berriak ez die kalterik eragingo.

### III GOGOETAK

#### I. Aldez aurretiko gaia

Lehenik eta behin, gure iritziz Gizarte Zerbitzuen Sistemaren zeregina eta da gainerrako gizarte-politiketarik isolatu behar; izan ere, Legearen Aurreproiektuaren 5.3. artikulua hala onartzen du, honakoa xedatzen duenean: *"Gizarte Zerbitzuen Sistemaren jarduerak koordinatu egingo dira beste sistema eta politika publikoei dagokienez, parekoak edo osagarriak badira, eta gizarte-ongizatea lortzera bideratuak badaude, bereziki, osasun- eta hezkuntza-sistemetan, berdintasunaren, enpleguaren eta lan-merkatuan sartzearen politikan, prestakuntzaren politikan, gizarteratzea bermatzeko politikan, etxebizitza-politikan, irisgarritasun-politikan eta gizarte-zerbitzuekin zerikusia duen beste edozeinetan"*.

Era berean, Zioen Adierazpenak onartzen du azken hamarkadan gizarte-zerbitzuek *"ahultasun-egoerekin eta baztertze-, marjinazio- eta pobrezia-egoera kronikoekin zerikusia duten arreta-beharren eta -eskaeren hazkuntza-eszenatokiari aurre egin behar diotela. Horiek talde ahulenei eragiten diete, batez ere, zailtasunak dituztelako etxebizitza lortzeko... Faktore sozioekonomiko eta familiar askoren ondorioz, ez dute nahikoa gizarte-babesa eta adin txikikoei eragiten dieten babesik gabeko egoerak dira"*.

Egungo aginpideen jardunbideari erreparatuz, politiken erantzukizuna kasu batzuetan Estatuari dagokio: hori la lan-legeriaren eta Gizarte Segurantzaren kasua. Beste batzuetan, berriz, aginpidea EA Erena da, besteak beste, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, osasuna eta diru-sarrerak bermatzea (Oinarrizko Errentaren bidez).

Orain aurkezten zaigun araua balioztatzen baino lehen, gai bat edo bestearen aginpidea zer erakunderena den alde batera utzita, gizarte-babesean guztizko ahaleginak gure gizartearekin bat etorri behar duelakoan gaude; ildo horri jarraiki, herrialde aurreratuekin berdindatzen daitezkeen errenta- eta ongizate-maila orokorrak ditu. Hala, desberdintasunak murrizteko eta gizarte-baztertzea eta -marjinazioa murrizteko

ahaleginak indartu behar dira<sup>1</sup>. Horretarako, ezinbestekoa da sistema eta politika publikoak koordinatzea.

## II. Arauarekiko gogoetak

Lehenik eta behin, Batzordearen iritziz Gizarte Zerbitzuei buruzko Lege berria behar da; 1996. urteko Legea egin zenetik jada hamarkada bat baino gehiago igaro da eta gizarte-zerbitzuekiko eskubidea bermatzeko eta sustatzeko nahia betetzeko beharrezkoak diren kudeaketa- eta koordinazio-tresnak egitura ditzan, sistema finkatu eta sendotzeko egin behar da.

Helburu hori betetzeko lege berria behar da egungo testuingurura egokitutako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arautu eta antolatzeko. Horrez gain, Ongizatearen Egoeraren egiazko mugarri bihurtu behar du. Hala, sistema unibertsala eta biztanle guztientzat izango da.

Gizarte Zerbitzuen estalduari eta lortzeko baldintzei dagokionez, lurraldeen arteko desberdintasunak zuzentzeko mekanismoak saratu dira eta aurreproiektuan emandako aurrerapauso hori onartzen dugu. Horretarako, Erkidego guztirako Prestazioen eta Zerbitzuen Sorta eta Katalogo bakarra egitea aurrez ikusia dago.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Eudelen aldetik Legearen Aurreproiektuak lortutako adostasuna onartzen da. Horri esker, arauak aurrez ikusitako erakundeen arteko koordinazio-tresnak hobe garatuko direlakoan gaude.

Erakundeen arteko laguntzari dagokionez, honakoa gogorarazi behar dugu: Gizarte Zerbitzuen Sistema garatzeko apustuarekin batera, Legea garatzeko orduan, beharren arabera finantzazioa egituratu beharko dela. Beraz, erakunde guztien konpromisoa beharko da. Halaber, xede horrez aurrez ikusitakoak (Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua) baino gizarte-partaidetzarako bide zabalagoak ireki behar dira. Horiek honakoak ahalbidetu beharko dituzte: batetik, zerbitzuen komunitate-garapena eta, bestetik, jarduteko moduak aztertu eta ebaluatzean parte hartzea.

Balioztapen horiek alde batera utzita, Batzorde honek bereziki kezkatzen dizkioten Legearen Aurreproiektuaren lau alderdi nabarmendu nahi ditu:

- Lehenik eta behin, zerbitzu eta prestazioak lortzeko printzipio edo irizpide orokorretan ez sakontzea (25.1. artikulua); horrek saihestuko luke ondorengo araudi-garapenak zerbitzu edo prestazio horiek lortzeko eskubide subjektiboa erabat edo zati batean edukirik gabe ez uztea. Gainera, erabat legezatu gabe gelditu dira Gizarte Zerbitzuak lortzeko baldintza bereziak (25.2. artikulua) eta oso-osorik

<sup>1</sup> Gizarte-babesaren herri-gastua EAEn gure Erkidegoko BPG-ren % 18,9 da (2004. urteko datuak), EE-15eko batez bestekoaren & 27,6ren aldean. Datu hau Espainiako Estatuko batez bestekoarekiko puntu bat txikiagoa da. Biztanleko gizarte-prestazioetan gastuari dagokionez, gure Erkidegoan 4.708 €-koa da, Estatuan 3.971 €-koa eta EE-15eko batez bestekoan 6.882 €-koa. (Iturria: Eustat eta Eurostat. *Gizarte Babesaren Kontua*).

bidaltzen du etorkizunean egingo den Prestazio eta Zerbitzuen Sortara. Horrek fikzio bihur dezake unibertsaltasunaren eta Gizarte Zerbitzuekiko eskubide subjektiboen aitorpena.

- Ildo horri jarraiki, batera ordaintzeko formulak eta arauzko garapenak zalantzak sortzen dizkigute, horrekin zerikusia duten Gizarte Zerbitzuen prestazioetan eskubide unibertsalaren edukia hutsik utz dezaketen neurrian.
- Gizarte-zerbitzuen kudeaketan ekimen pribatuaren partaidetzaren aukerari buruz EGAB-ren barruan dauden ikuspuntu desberdinak alde batera utzi gabe, Aurreproiektuan xede horrez egindako diseinuak zalantzak sortzen ditu, egiazko norainokoa ezin baitaiteke hauteman.
- Bestalde, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilurako planteatzen den izaera eta ezau-garriak kontuan hartuta, egokia dirudi gutxienez haurtzaroari, adinduei eta ezinduei buruz sektore-kontseiluak egituratzea. Hala eta guztiz ere, Batzorde honen iritziz, bestelako hitzarmen-eremu eraginkorragoak daude lan-gaiak lantzeko, hala nola enpleguaren kalitatea defendatzeko eta prestakuntza eta trebakuntza profesionala hobetzeko. Desberdina litzateke zerbitzuak optimizatzeraz bideratutako sektore-kontseilua planteatzea eta horren helburua zerbitzuaren hobekuntza izatea.

#### IV ONDORIOAK

Euskadiko EGAB-k Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen Aurreproiektuaren aurreko gogoetak errepikatzen ditu eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eskainiko duen gizarte-babesaren eta –estalduraren egiazko norainokoa zehatzago balioztatzeko, Prestazioen eta Zerbitzuen etorkizuneko Sorta definitu behar dela azpimarratzen du.

Bilbon, 2008ko martxoaren 26an

O.E. Presidentea  
Antxon Lafont Mendizabal

Idazkari nagusia  
Javier Muñecas Herreras